

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

35. astea (2026ko abuztuaren 24tik 30era)


Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarritzko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira, baina azken asteetan gripearen zirkulazioaren gorakada bat eman da. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du, baina SARS-CoV-2aren detekzioek gora egin dute.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 109,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (93,9/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen, bronkiolitisaren eta COVID-19aren tasak baxu mantentzen da, baina azken asteetan gripe sindromearenak eta COVID-19arenak pixka bat gora egin dute.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 14 lagin jagoleen % 50,0 baieztatu da. 3 SARS-CoV-2 eta gripe-birus bat detektatu dira, baina ez ABSik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 7,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,4/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA- eta bronkiolitis- (< 2 urte) tasak eta larrialdietako gripe-sindromearen tasa oinarritzko intentsitate mailan (balio inter epidemikoa) mantentzen dira.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 68 SARS-CoV-2 eta 29 gripe-birus erregistratu dira, baina ez ABSik.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 109,4 kasukoa izan da (93,9/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 92,8/100.000 izan da Araban, 103,8/100.000 Bizkaian eta 125,9/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 711,5 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 15-44 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 282,5 eta 121,1 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 40,9 kasukoa izan da (33,4/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ia ESI guztietan aste honetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 35. astea	Tasa 34. astea
Arabako ESI	97,9	98,6
Barakaldo-Sestaoko ESI	82,5	77
Barrualde-Galdakaoko ESI	116,3	103,7
Bidasoako ESI	136,2	98,9
Bilbo-Basurtuko ESI	105,9	92,7
Debararrenako ESI	118,4	85
Debagoienako ESI	91,5	57,4
Donostialdeako ESI	129,4	113,8
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	107,7	77,4
Goierri-Urola Garaia ESI	111,9	88,1
Arabar Errioxako ESI	237,8	271,7
Tolosaldeako ESI	122,0	83,4
Uribeko ESI	84,9	72,6

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

Lehen Mailako Arretan (LMA), gripe-sindromearen tasa 1,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (0,6/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (bi urtetik beherakoetan) 28,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (32,5/100.000 aurreko astean), eta COVID-19aren tasa 1,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (1,5/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 14 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 50,0 baieztatu dira. 3 SARS-CoV-2 eta gripe-birus bat atzeman dira, baina ez ABSik.

**AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE**



Aste honetan, SARS-CoV-2aren positibotasun-tasa %21,4koa izan da, gripe-birusarena % 7,1ekoa eta ABSrena %0,0an mantendu da.


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	35. astea		34. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	3	21,4	2	25,0	386	23,2
SARS-CoV-2	1	7,1	0	0,0	31	1,9
ABS	0	0,0	0	0,0	99	6,0
Metaneumobirus	1	7,1	0	0,0	72	4,3
Parainfluenza	0	0,0	2	25,0	73	4,4
Adenobirus	1	7,1	0	0,0	40	2,4
Errinobirus	0	0,0	4	50,0	325	19,6
Urtaroko CoV	1	7,1	0	0,0	99	6,0
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	24	1,4

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 7,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,4/100.000 aurreko astean).




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen taldean eman da 100.000 biztanleko 22,7 kasurekin, ondoren 1-4 urtekoen eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 5,0 eta 4,3 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



ABSren diagnostiko-kodeekin (J12.1, J20.5 eta J21.0) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 100.000 biztanleko 0,0 kasutan mantendu da. Gripearek kodeekin (J09-J11) lotutako ospitaleratzeen tasa 0,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arekin (U07.1) lotutako ospitaleratzeena 0,3 kasukoa (0,1/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 8,0raino igo da aste honetan (% 3,2 aurreko astean), gripe-birusarena % 9,4raino (% 5,6 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 0,0an mantendu da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	35. astea		34. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	100	8,0	95	3,2	9871	1,5
Influenza	96	9,4	90	5,6	9977	17,0
ABS	88	0,0	83	0,0	8990	12,2

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akuatuak (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu da, 2026/08 astean gaur egun mantentzen den oinarritzko mailara bueltatuz. Epidemian intentsitate maila baxuko gailurra neurtu da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, atalase epidemikoa 2025/42 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Kasu honetan, epidemiaren intentsitatea maila alturaino heldu da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian, intentsitatea ez da maila baxutik pasa.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan, 68 SARS-CoV-2 eta 29 gripe-birus erregistratu dira aste honetan, baina ez ABSik.

Aste honetan detektatutako 29 gripe-birusetatik, 19 A motakoak izan dira, 9 A(H3) eta bat A(H1)pdm09. 2025/40 astetik 8862 detekzio erregistratu dira, 8806 (% 99,4) A motakoak eta 56 (% 0,6) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4704 birusetatik, 2812 (% 59,8) A(H3) eta 1892 (% 40,2) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



2026ko irailak 2